



La Reinetako funikularra (Valle de Trapagaran)

1926ko irailaren 25ean inauguratu zen Zugaztieta meatzarrien herria Trapagarekin lotzeko. Hogeita bost urte lehenago, Aldundiaren eskutik orduan ere, bi toki horiek lotzeko errepide-adar bat egin zen, baina lurraren ezaugarriak, kurbak eta malda zirela-eta, ez zen errepide egokia ez merkantzien trafikorako, ez pertsonen trafikorako. Hortaz, malda handietarako funikularra egin zen.

Funikularrekin 10 minutuan egiten zen distantzia egiteko ordu eta erdia behar zen lehenago. Hori dela-eta, ezinbestekoa bihurtu zen Zugaztieta herrixkan bizi ziren meatzarrien bizitzarako, baita haien lanaren ondoriozko mea garraiatzeko ere. Ondorioz, aurrerapen handia eta bizitza-kalitatearen hobekuntza nabarmena ekarri zituen bertako herritarrentzat.

Deskribapena

Teknikoki, burdina garraiatzeko erabili zen etengabeko kableko automotoreko "plano inklinatu" baten antzekoa da La Reinetako funikularra.

Plano inklinatu batean, altzairuzko kable batek edo katea batek bagoiak arrastatzen ditu, halako moldez non kargaturiko bagoien pisuak hutsik daudenak igoarazten baititu. Funikularren era horretarako trakzioaren ordez, automotore elektrikoaren sistema jarri zen segurtasun osoa lortzeko. Sistema hori Suitzian egin zuen Brown Boveri konpainiak 1926an, eta La Reinetako geltokian dago jarrita. Bi geltokien planoak, berriz, Diego de Basterra arkitektoak diseinatu zituen.

Plano inklinatuak bide bikoitzetik edo erdiko desbideraketa batetik mugitzen dira. Trenbide sistema erraza aukeratu zen funikularrentzat: bide erdian gurutzatzen zena, elementu mugikor barik.

Beheko geltokia Trapagako La Escontrillan dago, merkantziarako baskula dagoen tokian, eta goikoa Zugaztieta La Reinetan, makineria dagoen tokian, biak euskal estilo berrian eraikiak. 1,2 km-ko tartea dago bi geltokien artean, eta bi lerrokadura zuzen ditu, kurba zabala batekin lotuta. % 25 - % 35eko maldak daude, eta maldarik altuenak trenbideko azken herenean daude.

Hauxe da trenbidearen ibilbidea: hasieran biaduktu bat, 10 m-ko argitasuneko eta 15 metroko altuerako erdi-puntuko bi arkuekin eta harresi osagarriekin; Zugaztieta errepiderako beheko pasabidea, 8 m-ko altuerakoa eta 4,5 m-ko argitasuneko, eta ondoren eustorma bat dago, 12 m-ko altuerakoa eta 80 m luzekoa; errepide horretarako goiko pasabide zehar, eta kurban dagoen beste biaduktu bat, 10 m-ko argitasuneko eta 15 metroko altuerako erdi-puntuko lau arkuekin, harresi osagarri eta guzti. Biaduktu horren zimenduak lur tinkoan daude jarrita, eta luperien gunea gainditzen dute.

Lubeten alde osoa kuxinduradun harlangaitzeko harresiekin egin da, azkenean hormigoizko mazizo batekin bideko plataforma osatzeko. Izan ere, mazizo horretan txertatu dira sekzio angeluarreko langetak, bertan txarrantxa gisa jarriak begizta itxurako 0,30 m-ko burdin bertikalen bidez. Hala, trenbidearen egonkortasun handiagoa bermatzen duen monolitoa osatzen da; izan ere, karrilen arteko zabalera 1,20 m-koa da, trenbideetako ohikoa baino handiagoa, zeren eta, kasu honetan, meak kargatzeko kamioen karga astunei eusteko diseinatu baitziren.

Azterketa

Espainiako estatuan malda handietarako horrelako 11 tren daude martxan, eta horietatik gehienak (6) Bartzelonan. Bertan eraiki zen lehena 1901ean Tibidabora igotzeko tren suitzarren ereduari jarraituz. Bizkaian bi daude, Artxanda eta La Reinetakoak, baina La Reinetakoa desberdina da eraikuntza-teknikagatik edo diseinuagatik eta betetzen duen funtzioagatik.

Balorazioa

Balio historikoa eta gizarte funtzioak nabarmendu behar dira, baita diseinuaren egokitzapena ere. Izan ere, pertsonen garraiorako ez ezik, mea kargatzeko eta ibilgailuekin ibiltzeko egokitu behar izan zen.



Testua: María Molinuevo.
María Romano.



La Reinetako funikularra

Valle de Trapagaran.

Nola heldu:

A-8 autopistatik, Portugaleteko irtenbidean hartuko dugu Trapagarantz, eta hirigunera iristean N-634 errepideko bidegurutzean, zuzen jarraituko dugu Funikular kaletik, zuzenean eramango baikaitu La Reinetako geltokira.

Hurbil dauden beste toki interesgarri batzuk:

- (Trapaga)
 - Zugaztieta meatzarrien herria .
 - Olaso jauregia.
- (Portugalete)
 - Andre Maria basilika .